

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 Inp. R. Fernández J. Arana 27. BILBO

12. Zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA

50 pta.

1987ko Apirila



EUEJENIO BERROTARAN SORONDO, itsasoa eta kofrandian lanean ibili ondoren, 46 urtekin bista gaitzeko zoria izan zuen gizona dator gaur **GURE PERTSONAIA** orrira. Egunoro ikusiko dugu Portuan ONCEko kupoiak saltzen, bere inguruan pasatzen diren guztiei kasu eginaz.

Emaztea ere bere ondoan agertuko da beti, bikote atsegina osatuz. Hauek dira, ba, beuren barrua agertu dugutenak, Lau garren orrian irakur dezakegu Eujenioaren argeren osoa.

Hamabigarren alera iritsi garenean, urte osoa ongi beteta gero, herriak ondo erantzun duela aitortzen dugu.

Guk aurrera egingo dugu etsi gabe, eta sekula baino ilusio haundiagoz. Gure helburua bete arte bai behintzat, alegia Hondarribiko euskaldun guztiak euskaraz irakurtzen jarri arte.

Orduan, aldizkari haundiago eta sakonagora igaroko gara.

Hileoro bezala, oraingo alean ere, **HERRI GIROA**, **NEKAZARITZA**, **ARRANTZA**, **KULTURA**, **ESKOLAK**, **KIROLA**, **UDALA**, etabar aurkituko duzu. Firma ezagunak ere ez dira falta: **Ximon**, **Andres**, **G. Artola**, **M. Ugarte**, eta beste kolaboratzaileenak.

ASTE SANTUA HONDARRIBIAN

Florentino Portu

Hondarrribian, Erramu eguneko igandian dute hasiera Aste Santutako elizkizuanak, aurtengo urtean, Apirilaren hamabian. Goizeko hamarretan, herriko sarrean egiten da Erramuen bedeinkazioa, eta ondoren Meza Nagusia.

Egun honetan, arratsaldean, Eliza barruan Gurutz Bidea, Jesus Nazarenoaren irudiarekin. Ohitura hau antzinako denboratik heldu da.

Asteartean eta asteazkenean, Magdalenako elizan eta Eliza Nagusian, penitentziatzko elizkizunak.

Ostegun Santu egunean, Elizkizun Nagusia arratsaldeko zortziretan. Apostoluen oinak garbitzea, Jaunartzea, eta prozesioa Monumentura. Ostiral Santu egunez, Eliza Nagusian goizeko hamarretan, Gurutz Bidea euskaraz. Ostiral Santu egunean jende asko inguratzen da, arratsaldeko Elizkizunerara batez ere.

Arratsaldeko bostetan ematen zaio hasiera, eta bi zati ditu Elizkizun honek. Lehendabizikoa, Liturgiako zatia, Nekaldiko Ebanjelioa kantatzen delarik, eta Gurutzen Santua gurtuz.

Gurutzen hau isiltasun eta errespetu handiarekin egiten da. Horretarako zurezko edo egurrezko Gurutze haundi bat jartzen da Aldare Nagusian, eta Kristo gurutztzatua. Gurutza eta Imajina urtean Fray Jeronimo de Estellak emanak dira, eta Iruñako Gotzaiak Juan Lorenzo de Ingoyenek bedeinkatuak.

Eta orain heldu da bigarren zatia. Kristoren imajina Gurutzetik jetsitzea. Aurtengo urtean izango dira Hiru Egun eta Larogeta Bost Urte ohitua hau egiten dela. Hontarako, **Jaungoiko Guardatzaileak** egingo dute sarrera Elizan, eta jarriko dira batzuk aldarean Gurutze azpian.

Apazileku honetan jarriak egongo dira **San Juan**, **Santa Maria Magdalena**, eta **Ama Bakartasunekua**ren irudiak. Baita **Hillobia** edo **Sepulkroa**. Gurutzbideko lekua ematen du irudi eder honek. Koruak **HIL DA JESUS** abesten du. Gero apaz jaunak hitzaldi txiki bat egingo du. Bukatzian, onerazpen eta isiltasun haundienarekin Kristoren Imajina Gurutzetik jeistea egiten da. Lehendabizi **Nazaretar Jesus** ikurratza kentzen diote, gero burestun edo kororia eta hiru hiltzeak, apaz jaunari emanaz.



NEKAZARITZA

E. H. N. E. REN BILTZARREA

Kristoren irudia oihaltzuri batekin bezapitilik hartua eutsitzen da, eta bi apaiz-ke errezele on batekin estalirako Hilobian jartzen dute Kristoren irudia.

Bukatu da elizkizuna, eta prozesioa antolatzen da. Lehendabiziko, Baratzeko Oitoitza - Hamabi Apostolak - ondotik Zutabera Lotua - gero Beronika - Nazarenua - Kristo Gurutzean - San Juan - Santa Maria Magdalena - Hilobia edo Sepulkroa - eta Ama Bakartasunekoa. Ondoren Eliza Nagusiko Gurutzea eta Apaizak, baita herriko musikabanda ere.

Bi aldamenetan gizon eta gazteria asko beren zirio edo kandelarekin.

Prozesioa herri barrereko kaletatik igarotzen da, eta berriro Elizara sartzen denean, Kristoren irudia bere lekuan jartzeko zeremonia egiten da, koruak Zutik Gurutzen Ondoan kantatzen duelarik.

Aldare hau Don Martin de Echazuek emandakoa da, 1921 urtean.

Elizan gorderik dauden irudi gehienak lehenengo Aldare Nagusikoak dira, Juanes de Iriarte 1590ko urtean eginak, baita Jeronimo Larrea Goizuetak egindakoak ere. Ostiral Santuko prozesioan ateratzen diren irudiak ez daukate meritorik. Talla bezala bi dira onak: Kristo Gurutzean eta Kristo Hilobian. Ernesto Lasernak esaten zuen: "Baina zer dauka Prozesio honek, haibeste jende kanpotik etortzeko? Imajinak ez dira bereziak, ezta ere manto baliokoak, baizik dena ISILTASUNA da".

Larunbata Santuan arratsaldeko zortziretan Biztuberriko Meza Nagusia, eta azkenik igandean, PAZKO EGUNEAN, goizeko hamarretan, Jaungoiko Guardatzaleen Erorketa Eliza Nagusian, eta gero Ttopara deitzen zaion Aurkitzeko Prozesioa eliza barruan, Meza Nagusiarekin bukatzen dela.

OHARRAK

EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 6retan, haurrentzat, Portuan.

Arratsaldeko 7,30tan, Portuan.

IGANDETAN:

Goizeko 8retan, Guadalupen.
Goizeko 8,30tan, Betharranetan.
Goizeko 9retan, Amuten.
Goizeko 11etan, Amuten.

TXANDAKO BOTIKAK

Apirilak 6-12: Maiy
13-19: Iraola
20-26: Erauskin
27-30: Maiy

Maiatzak 1-3: Maiy
4-10: Iraola
11-17: Erauskin

Urteoro bezala, aurtzen ere San Jose egunez egin da Tolosan EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTASUNAREN Biltzarre Nagusia. Aurtengoa bederatzigarrena izan da.

Gure herritik esan behar ez zela jende askorik hurbildu Tolosara. Egia esateko, bi lagun bakarrik azaldu ziren, nahiz eta 37 bakide izan E.H.N.E.n sartuak. Itxura denez, herriko nekazari edo baserritar askori ez zaio ajola haundirik zer ari den gertatzen European sartzearekin, eta zer etorkizuna datorikun Europa Komunitatea dela eta. Benetan konturatuko baziren, ez ziren horren lasai egongo.

Biltzarren Nagusian, urteoro bezala, Junta erdia aldatu zen, eta orain esango ditugu hango puntu garrantzitsuenak.

1. Esne kuotak direla eta Europakon Iparraldeko herriek esnea sobran daukela badakigu, baita horien asmoa ez dela esne sobrantea itsasora botatzea, baizik guri saltzea. Horretarako jarri nahi digute nahikoa aipatutako esne kuota.

Baina E.H.N.E.ko lehendakaria den Patxi Subijanak esan zuen guk ez dugula gure herriak behar duen hainbat esne produzitzen, eta ezin dela murriztu gure produzioa, baina Merkado Komunean dauden

beste herriek Españiako Gobernuari murriztea eskatu diola.

Lehendakariak esan zigan gure burukak bakarrik lortuko duela hori gelditzea.

Eta dei bat egin zigan baserritar guztioi parte hartu dezagun egingo diren mobilizapenetan, eta lan hau nekazari guztioi dela eta ez batzuenak bakarrik.

Beskaldetik, Españiako Gobernuak eman duen legeari, alegia, esnearen produzioa deklaratzeko, esan zuen ez egiteko kasurik, gure kalterako dela eta.

2. Lurrak zaintzea. Biltzarre Nagusian baita ere hitz egin zen gure lurrak reorganizatu egin behar direla, eta ez orain daukeen bezala, alde batetik espekulazioa (merke erosi eta garesti saldu), bestetik bakoitzak nahi duena eginaz. Esate baterako aipatu zen gure mendietan den deskontrola, pinu insignis aldatuaz eta bertako arbolak baztertuaz. Horrela mendi guztiak hondatu egiten direla.

Baita Udalari eta Diputazioari ere eskatu zitzaizen estudio sakon bat egiteko herriko lur guztiei buruz, jakin dezagun lur bakoitza nola dagoen, eta zer produzitzeko gai diren.

Ximón



Arnosti-punta

TXANDAKO OKINDEGIAK

Apirilak 12: Garmendia
17: Martinez
19: Arratibel
20: Garmendia
26: Martinez

Maiatzak 3: Arratibel
10: Garmendia
17: Martinez

ANA MARI AGIRRE

Janaridenda

Guadalupe Auzoan Tel. 641773
HONDARRIBIA

Martxoan alean eskutu genuen Hondarribiko antxinako Sagardotegien zerrenda egiteko laguntza. Eta etorri zaigu **Ke-
pa Kaizarren** eskutia. Kepak "Deia" egun-
karian ematen digu arrastoa, txikia Floren-
tino Porturen "NOTAS HISTORICAS Y
CURIOSIDADES HASTA 1969. FUENTE-
RRABIA" liburuan daukagula delako ze-
renda hori.

Interesgarria iruditu zaigu, eta hona
hemen 1934 aurretik zeuden 56 sagardo-
tegien zerrenda, liburu horretatik jasoa:

- Kale Nagusiko 2, 3, eta 6 zenbakietan,
- Panpinot kaleko 4, eta 20an.
- Etxenagusia kaleko 11an.
- Apezpiku kaleko 1, 5, eta 9an.
- Harma Plazako 13an.
- Iparra kaleko 5ean.
- Laborda kaleko 3an.
- San Nikolas kaleko 3, eta 15ean.
- Ugarte kaleko Gaztelupean.
- Damarriko "Glorian".
- San Pedro kaleko Rakataplaunean,
- Maulisi-lulenean, Romantxonean, Kati-
lunean, Bernardonean, Amundarai-
nean, Txerribeltzenean, Alijamuñean,
- Itsuanen, Tolar Zaharretan, Tolar Be-
rrietan, Don Maximon Eskabaxian,
- Estanizenean.
- Santiago kaleko Nikolas Txikinean, Pio
Kanpandegiren etxian, Mañunean, To-
nibio Garziaren tolaletan, Tomas Agina-
galderen tolaletan, Miguel Panen etxian.
- Zuloaga kaleko Hilario Labordaren Es-
kabaxian, Florentzio Martinean.
- Kostako Gartxanean, Sarasola etxian.
- Santa Engraziako tolaletan, eta Urbi-
ñenean.
- Amuteko Miguel Ugarteren etxian.
- Mendekuko Albizuren etxian.
- Baserritan: Mendianbordan, Ogalurreta-
azpin, Kamiyon, Apatxararen, Paskual-
nean, Ipiztikun, Altxako-Aundin, To-
rrean, Ipiztikunean, eta Magdalen-gai-
nen.

Itsasoko Gurutze Gorriak instalazio be-
rriak izango ditu datorren udarako, Pun-
taleko Arraun Elkartearen gainean eraiki-
ko den etxean.

Oraintxe bete da urtebete herriko Plan
Jeneral berria, edo **Norma Subsidiaria** be-
rriak aurkeztu zituela Udalak. Harrez ge-
roko ezer gutxi jakin du herriko jendeak
Plan hori buruz. Badakigu kontrako iriz-
batzu agertu zirela, baina urtebete igaro
eta gero, zertan dira **Norma** horiek?

Gipuzkoako Merkatal Ganbarak Hon-
darribiko aireportua bizitu nahi du. Horre-
tarako 280 milioi behar omen dira, eta
gastatzeko ere prest omen daude. Egaz-
kin gehiago beharko lirateke, eta haundia-
go. Pistaren luzuera nahikoa omen da,
bere 1.754 metroekin, eta 45 metro za-
balerakoak ere nahiko direlarik.

Suteen kontrako ura ateratzeko, 22 le-
kutan prestatuko dira harlekuak. Dagoe-
neko, 3 Santiago kalean jarri dira, 2 San
Pedro kalean, 1 Iparra kalean, 1 Biterin,
1 Sokoan, 1 Juaristi kalean, eta 2 Lorai-
tzen.

Falta direnak: 1 Gibeletan, 1 Mende-
lun, 2 Amuten, 1 Damarrin, 1 Ilerlimenen,
1 Sorotaberrin, 1 Sorotetan, 1 Sorotaga-
gainen, 1 Aginagalden, eta 1 Puntalen.

Jaizkibel mendian 100.000 zuhaitz al-
datu edo landatu omen dituzte, dagoene-
ko. Hirugarren landaketa da orain bukatu
dena, oraingoa 15.000 itsaspini, eta
5.000 haitz aldatu diralarik. Gaztainon-
doak ere aldatu ziren. Ea noliz edo noliz gu-
re mendiaren itxura berdetzen den, zu-
haitz ederrez estalirik.



Torraibako jauregia erdi eroririk da-
goen lekuan, ikastolarako aurre-eskola
emateko ikastetxea egingo da berehala.
Horrela nahi izan du Udalak, batez ere
EUSKARA indartzeko.

Gernikako bonbardeaketaren 50. ur-
temuga betetzen delako aurten, Hondarri-
bian ere talde bat osatu da, Frankok, Mo-
lak, Alemanak, Italiakoak, eta haien ja-
raitzaileak abertzaleen aurka ekintza
gaizto eta hilkorren oroinenez, zerbait
antolatzeko herrian. Apirilaren 26an bete-
tzen da urtemuga tristea, eta orain egon
guztiok egun hartan parte hartzeko egi-
ngo diren ekintzetan.

Itsas-Etxeko Udal Liburutegian 295
baskidek eman dute izena, dagoeneko.
Seinale oso ona da, kultura adimenaren
aberastasuna bait da. Zer esanik ez, gaz-
teak direla gehienbat liburutegira
doazenak.

Euskararen aldeko KORRIKA inguruan
antolatuta ziren ekintza artean, KAI-
BERRIARI buruz egin zen Mahai-Inguru bat
Arrantzaleen kofradian, apirilaren 4an. Gai
irristagarria da gure herrian, eta jakin na-
hi zen alderdi politikoan iriztia.

Mahaian eserit zirenak hauek izan zi-
ren: Kofradiaren izenean, Jose Migel El-
duayen, Esteban Olaizola eta Xabier Sa-
gartzazu; E.E. izenean, Bittor Aldabe; PNV
izenean, Prudenzi Lekuona; eta H.B. ize-
nean, Enrike Lekuona. Zuzentzaile: Iosu
Alkain.

Jende asko bildu zen Kofradiako are-
to nagusira, eta lehendabiziko komenta-
rio E.A. eta PSOE ez agertzearena izan
zen.

Mahai inguru oso luze eta interesga-
rria izan zen, eta garbi geratu zen Kai-
Berriaren beharra.

Hondarribiko alkatea izan zen Jose Ra-
mon Fernandez de Casadevante hil da
joan zen hilean. Gizon hau Sagarazu ja-
uren atzetik izan zen alkate, hau da,
58.XI. 15tik 66ko uria arte. Bere ondoren,
Pedro Aginagale jarri zen Udalaren buru.
Casadevante izan zen Carlos V (edo San-
txio Abarka) Gaztelua Espainako Gober-
nuari erregalatu ziona.

Zirkulazioko istripu bildurgarria jasan
du Kostako Imanol Arbelaitz Kerejetak.
Donostiako Gurutze Gorriko Eritetxean da-
go larriki zauriturik.

HERRI BERTAN kooperatibako etxeak
azken ukituak egiten ari dira. Ondo kos-
tatako etxeak badirudi helmugara inxti di-
rela. Badute meritoa horretan jotake (ibili
direnak irabazi arte).

EUGENIO BERROTARAN

Adiskideitsu baten eskutitza Braille sistemaz irakurtzen aurkitu dugu EUGENIO BERROTARAN SORONDO, bere etxera joan garenean.

PILAR EIZAGIRRE ELIZAZU bere emazteak ireki digu atea. Eta patxara ederrean hasten gara hizketan EUGENIOrekin.

Eskerrak Sabadellgo eskolari

—Zenbat denbora behar izan zenuen Braille sistema ikasteko?

—Hiru hilabete eta erdi egin nituen nik Sabadellen dagoen itsuen eskolan. Lagun haundiak egin nituen han. Zer nahi duzu? Beti hemenixe bihotzean sartua dut eskola, eta horrek asko tiratzen du. Nik eskola somatu ezkerre "andare" konten, konten.

—Zer ematen dio itsuari eskolak?

—Dena. Hantxe aurkitu nuen nik nere bizitzarako soluziua.

—Baina hara joateko erabakia nahiko gogor egingo zitzaizun.

—Ba... Barzelonako medikuak etsia eman zidanien, buruari milla buelta eman nion, eta inundi ere soluziorik ez! Orduan konbentzitu egin nintzen bide berri bat hartu behar nuela, eta zuzenean, herria etorri gabe joan nintzen eskolara. Gogorra izan zen, baina aurrera egin behar zen eta kito. Neriak ez zuen soluziorik bestela.

—Zenbat urte dira hori gertatu zitzaizula?

—Zortzi urte izango dira bistarik gabe geratu nintzela. Gero lau operazio egin zikidatan, baina alperrik. Orainxe izango dira bost urte eskolara joan nintzela. Apiril-kan 8 edo 10 izango zen, eta Santiago egun arte egon nintzen.

Bizimodua aldatu beharrean

—Aldaketa haundia izango zen zuretzat, noski.

—Bai horixe. Gainera, zer egin? Eskolan esaten zidaten "Eugenio ¿qué vas a hacer?, deberías de vender cupones". Konsultatu nuen familiarekin, eta zididitu genuen. Nahiko penarekin hasi nintzen. Badakizia, nik Kofradian egiten nuen lana, denda, eta lonjan ere lagunak esaten zidaten penak ahanztziko zirela eta aurrera egin behar zela. Horrela lajatu nuen dena, eta hasi nintzen.

—Nolakoa izan zen lehenbiziko eguna?

—Ez dut ahanztziko inoiz. Oroitzen naiz joan nintzela Kofradiara nere tira haiek zintzilik... Negar egiten nuen, oso rato txarra pasa nuen...

—Gogorra izan al zen eskolako ikasketa?

—Bastoiarekin izan zen lehenbiziko prueba. Eskola izugarria da, ederra, ariplanua baltz bezalakoa, pasillo luzea eta bi egalekin, eta barrena dena ikasi behar zen. Hasitzen ginen atze atzetik, ezkerreko aldetik, atez ate, "Hau zer duk?" —"Hau gimnasia". —"Hau?" —"Hau zerbiziak", eta horrela pasillo eta egala osoak... Gero buelta eman, eta han zendun beste sala bat braille ikastekua, mekanografia, etabar...

—Barregoa ikasita gero, zer?

—Hamabost egun igarota, "tori, hemen duk hire anaia" esan eta eman ziguten bostia, eta ateratzen ginen jardinera, maisuekin, taka taka jo eskina guztiak, buruan mapa bat egin arte. Jardiña osoa eza gututa gero, mendira. Mendiak kaliai dituzte, ezker eskubi, eta han ere ikasi egiten da parajea eza gutuzten eta zure buruan planoa egiten.



Goien: Eugenio Berrotaran, Zelestino Goikoe-txea, Domingo Ezpona, Pedro Iridoi, Juan Etxebeste, eta Alejandro Emazabel.

Gero emaztia eta haurrak ere nere lagun-tailerik onenak izan dira. Gero, ONCEko kupoak saltzeko ere kalera ateratzen nau eta herri guztia-ekin tratatzen dut eta denek egiten didate kasu. Gainera lehen pre-miua ere eman ditut zortzi alditan, 20 milioiua eta guzti. Nahiko lan egiten dut eta konten naiz.

—Zerbaiten falta sentitzen al duzu?

—Nik askotan esaten dudana esang diziet orian: nik asko ikusi dut begiekin, eta asko pasatu dut, baina orain badakizu zer esango dizuedan? Ez nau inportikan ez dutala ikusten. Gauza bat bakarra eskatzen diot Jaungoikoari: bi alaba ditut eta semea ere bai, mutil haundia, kastillua bezalakua, eta hori dut bakarra aurregia juana, gizajua. Ukitzen diot aurregia, eta etortzen ez. Beste alabak eta andria eta denak hemen buruan dabilzta bueltaka. Semea piska bat ikusiko banu... Baina horixe falta! Eta gero hiloba berri txiki hori... Beste orango gauzak? Batere inportik ez.

—Ematen du gogorra izan behar duela...

—Latza da, bai. Ordu asko dira ikas-ten, bai bastoiak, bai braille, bai mekanografia... Denetik ikasi nuen eta konten nago. Ni hemen Hondarrribian geratu banintz, akabot!

Ez ikusteak inportik ez

—Lehengor bizitzatik oraingora igaro-
tzeak zer ekarri ditu?

Hamairu urtetik hasia itsasuan, eta hor-lanian ibila 46 urte arte itsaso eta denda, hori ezin da baztertu. Baina nere izakera oso irekia da eta horrek lagundu dit asko.

Behan: Santos Tife, Manuel Sorondo, Julen Zubillaga, Migel Agirre, eta Nikolas Arribillaga.

Nik badakit zer den gorria, berdea, oria, kolore den denak hemen ditut nere begi-tan, herri osoa, bizi izan detan guztia bu-ruan dut eta hortxe ikusten ditut lagunak, Guadalupe, Jaizkibel, benta, eliza... Nahi-koa dut.

• • •

Zoriona ala zoritxarra bereiztea ez da jende askok uste duen bezain erraza. Itsutu den EUGENIO dugu horren lekuko. Begietako argiaren galera, etxeokoen eta lagunak eta urrutiko jende askoren lagun-tzak gaitudi ahal izan duen gizon gazte honek guztiori erakutsi digu bizitzari aurrez aurre begiratzen.

IPUINA?

Aintzinako ipuina da Eiderrena eta Piztizarrena. Abere gajoa! Zeren Eiderrek ez bait du ulertzen Piztizarrenaren hizkuntza, ez daki ulertzen haren deiarer erdiragarria. Abereak beste bizitza bat nahi du, maitasunaren egarriak dago: maita nahi du eta maitatua. Ateratzen zaizkion oihu-marruek, ordea, ezin diote aditzera eman Eiderri daukan egarri berezi hori.

Eider ausartu beharko litzateke Piztizarrenaren begi-hiñietan begiratzen. Beldur dago ordea. Ez du mutur nazkagarri eta hiletsu horretan ezkutatu dagoen begirada deskubritu nahi. Egia esateko, zenbaitetan, gordeketa, Eiderrek ikuskatu egiten du Piztizarra. Etsi-etsian, arretaz begiratu egiten dio baina ez du ezer ikusten abere hinguigarri bat baizik.

Noiz arte egoera latzgarri hau? Noiz etorriko da ipuin honen bukaera zoriontsua? Bukaera zoriontsua etorri baino lehen, luzaz egon zaio begiratzen Piztizarra Eiderri, adi-adi, irmoki, sendoki, haren begiek otoiñaren itxura hartzen zutela.

Heldu da inxtant ezin ederragoa, hasi zaio Eider bgarada berri batez Piztizarri begiratzen... Hasierako begirada erukitsua zen, iheskorra gero; sartu da Eider begiradaren bide-xigorearen presarik gabe, urratsez urrats. Bide-xigor horrek darama elkar-topatzearen eta maitasunaren bazter goxora. Egunetik egunera Eiderrek Aberea deskubritu egiten du, begirada gero eta garbiagoa, gero eta sakonagoa du, miraria gertatu arte: Primaderan kimu berriak ernatzen diren bezalaxe, hala Pizti-

tzarra "berritu" egin da eta Printze bilakatu da.

Beste modu batez begiratzen duela ematen dio Printzeari izatea Eiderrek. Printzeari ematen dion poza berari doakio ere. Eta hala biak gozamenaren bidea hartu zuten.

• • •

Bai zaila dela egun monotonoen zehar begirada desberdin bat ingurari ematea!

Guadalupe Artola

"APOSTOLUAK" HONDARRIBIKO

Hondarribira etorri berrian niri inpresio handia egin zidan zerbit, Aste Santuko erituaren elizkizun-tradizioa izan zen, eta bereziki, Apostoluen.

Benetakoen antzik aurkitu baitnien.

Benetakoak, niretzat, neuk haurtzarotik estapan eta elizetako irudien bitartez buruan jasokak ditudanak dira, eta hemen bada arrazoin biderik ere: Batetik, Kristorekin ibili ziren batzuk arrantzaleak ziren, eta herri eta denbora guztietako arrantzaleak seinale bera dute aurpegian, eguzki berak, haize berak eta kresal berberak zurratu dien larru ilun-gorriak hori; lehortarrak ez bezalako azal koloreak, noski, eta, honekin kontrastean, begi zurri-argiagokak. Bestetik, imajinetan apostoluek erakusten duten seriotasun eta saindutasun jitea ez da antzerkietan aktoreek egiten dituzten planta edo itxuren modukoa, fedek berak eragindako zerbitzen agerpena baizik.

Neuk halaxe sentitu nituen orduan, eta geroztik ez dit ezerk gezurtatu orain ia hogei urteko inpresio hura.

"Apostolu" hauetako bateren bat kalean ikusten dudanean, imajinarioak jazen dit kolore biziko soinekoak eta sinboloz, buruinguruan zisku eta guzti. Oso gauza bitxia da gertatzen zaidan hau. Litekeena da, apostolu hauetako batek noiz-pait mozkorralditxo bat harrapatzea, Noe berari gertatu zitzaion etal, baina hala ere nire begiek ez lukete sinistuko.

Hondarribiko Aste Santuaren agerpen hauek famatuak dira aspaldidanik, Luis de Urzazuk esaten digunez, orain ehun urte Ingalaterrako Eduarko VII. erregea bera ikusi zuen, historialaria mutiko zela, Kale Nagusiko 33garreneko balkoitik prozesioari begira; hain gustokoa aurkitu zuen, hurrengo urtean beriz etorri zen. Eta Sueziako erregea ere hemen izan zen beste batean.

Hondarribiko tradizio eder honen zati berezienak bi dira: **Grutzetik jaitsiera** edo **Topara**. Lehenengoa, ostiral santu arratsalde, eta bigarrena, Pasku ingandez. Bietan hartzen dute parte Apostoluek: lehenengoa, hiltzeak eta koroia jaitsi eta Gorputza bera kristalezko urna batean sartuta gero martxan jartzen den prozesioan; Toparan, berriz, Amabirjinaren bila doan ingandeko prozesioan.

Aurten ere hor izango ditugu; tradizioa langile fina baita.

Hainbeste urtez, ez dira beti berak, noski, eta norbait hiltzen denean, apostoluek ere hiltzen baitira, bere senidetarteko norbaitek tradizio ederrez jasoko ditu apostoluen sinbolua, soinekoa eta, baita heredentzia beraz, apostoluen egitazio seriotasun berezi hori ere.

Martin Ugalde



S. Pedro kalean Tel. 642734
HONDARRIBIA

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobeak

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

GOIKOETXEA

Janaridenda

S. Pedro kalean, 51 Tel. 641029
HONDARRIBIA

AROEZA - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

TXUNTXUMELA

Belardenda

Santiago Kalean HONDARRIBIA

EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540
HONDARRIBIA

KORRIKA

—Apirilaren 5ean igaro zen gure herri-
tik.

KORRIKA 5. Euskararen aldeko ekintza haundi eta harrantzitsua izan da aurtien ere Hondarribian KORRIKA. Korrikalari askoz inguratuta eraman zen kilometroko kilometro gure herriko eskultore famatu Remigio Mendiburuk egindako testigu zurezkoa.

Lehendabiziko kilometroa Jaizubiako Zubietako baserri parean hasi zen, Institutuko neska-mutilek zeramatela testigua. Bigarrena, Amuteko zubian Eskifaia hartu zuen testigua. Hirugarrena, aireportu parean Bekoerrotako Kike presoaren emazteak hartu zuen. Laugarrena, San Markosen Ikastolako haur eta gurasoek, Portuari buelta emanaz. Bostgarrena, oleasor parean, Biteriko haur eta gurasoek, Seigarrena, Santa Engrazian, Amute-kostako Auzo Elkartek. Zazpigarrena, Amutek Mendeluraino Hondarribiko A.E.K.

Mendelun, Irundarrek jaso zuten EUSKARAREN TESTIGUA, eta aurrera jarraitu zuten, Endaikiat Bilboraino, Euskal Herria guztia zeharkatuz, euskararen maitale guztiak bildu daitezten.

Janari gozoenak subastan

KORRIKA inguruan beste ekintza batzuk ere antolatu ziren Hondarribian. Hauetako bat **herriko Sukaldari trebe eta famatu**enak prestatu eta erregalatutako plater gozoen subasta egin zen San Pedro kalean apirilaren 4an.

Hona hemen, inbiri piska pasatzeko, zeinek zer prestatu zuen eta zer subastatu zen:

ZERIA: Itsas-sapoa honito-saltsan.

RAFAEL: Mihingaina saltsan.

LOREDUNA: Odolkia piperrakin

Kreps pastela

ARRAUNLARI: Legatza-Arraunlari.

DIAZ GOZODENDA: Pastelak.

ROTETA: Hondarribiko Barazki Pudina.

XAIA: Txipirolak.

KUPELA: Bakailoz betetako piperrak.

HAWAI: Pastelak.

BEKO ERROTA: Atunezko Serrak Piperrak-detan.

Bakailoz betetako Lodosako piperrak.

MANOLI: Arrain zopa.

OSTARTE: Rape amerikarra saltsan.

AQUARIUM: Hibiako karramarruak.

KAI ALDE: Pastelak.

SEBASTIAN: Honttoz eta foiez betetako ojaldea.

LEKUONA: Bakailoz betetako piperrak.

GRAN SOL: Ajo-arrierozko bakailoa.

Giro ederra sortu zen San Pedro kalean. Eguraldia ere gozo gozoa zen, eta di-
ru piska bat zutenek suertea izan zuten ha-
lako janari mm!!! puturu de fuakoak eus-
karaz jan ahal izanaz.

KULTURA



HITZAK DIRA HITZ

Esaldiak hitz korapiloak direnez, hitz jokoetan bihurtzen dira hauek derrigorrez. Ezaugarri hau dela bide, askotan esaldiak ez dute esanai finko edo argi bat, edo eta ulergaitzak agertuko zaizkigu. Ez dezagun ahaztu gu garelako eratzten ditugunak. Irakurlearengain ordea, beti edukiko dute eragina, nola hala muinak zirikatuko bait dizkiote.

Gizakiak betidanik bilatu izan du biziaren zentsua; batzuk dioten bezala: egia, edo eta esanahia. Askok diotenez aurkitu izan da. Ez al diru frutu gehiegi ordea, lo bakarrentzat?

“Pentsa al genezakeen gizaki deritzagun moeta arraroko kreatura hau bizi zezakeenik hemen behean?, imagina al genezakeen hain erreflexio jakintsu eta grina zororik zituen ezer?; hain perspektiba zabal eta hainbeste ezjakin garrantzitsuenetaz?, hainbeste sutasun libertatearen alde eta hainbesteko makurdura morrontzarako?, hainbeste lehia zoriontsuak izateko eta honenbesteko ezintasuna hau lortzeko?”

“Esan ohi da jainkoek nektarez mozturik zeudela gizakiak egin zituztenean eta, jadanik, lasaituak, heuren ekintza behatzerat etorri zirenean ezin izan zutela hiririari eutsi.” Fontenelle (1657-1757)

“Agian gizonak maitatzen dituenaren eginkizuna, hauek egiaz far egitea lortzea da, egiaz far egitea lortzea, egi bakarra egiaz dugun grina kaltegarriaz askatzen ikastea bait da.” Umberto Eco

Mikel Mariskal

BIENABE ARTIA HIL DA

Hondarribian urte batzuen zehar bizi izan den irundar pintore haundia, Nafarroako Etxalarren hil zen Martxoaren 18an.

KONTZERTUAK

Eskifaia “V. Aste Santu Zikloa” antolatu du. Aurtien, gure herrialdeko talde bikainenetakoak etorriko zaizkigu. Kontzertu hauek Portuko Elizan emango dira arratsaldeko 8’30 tan. Hona hemen egitaraua:

—Ostirala 10: “Donosti Ereski” abesbatzak eta “Donostiako Udal Kontserbatorioko Orkestra”k Verdi-ren “Requiem”a interpretatuko dute Miguel Amantegiren zuzendaritzapean.

—Larunbata 11: Donostiako “San Ignazio” abesbatzak abestuko du Jose Antonio Sainz Alfaronen zuzendaritzapean.

—Igandea 12: Zikloari amaiera emanez Eskifaia abestuko du.

Beti bezala, sarrera dohain izango da eta kontzertu bakoitzeko egitaraua emandaldi bertan banatuko zaizue.

Maribi

ALFONSO SASTRE OMENDUA KALIFORNIAN

Hondarribian aspaldidanik bizi den idazle ospetsu eta goren goreneko mailako Alfonso Sastri **Omena** egin diote Kaliforniako **San Diego** Unibertsitatean.

Alfonso Sastre oso ezaguna da mundu guztian gaztelaraz idatzi duen guztiagatik, eta bere antzerkiek dute izen haundia batez ere.

Aldizkari honek **Zorionak** ematen dizkio omenaldi honegatik.

KAI BERRIA

Kai Berriaren apilatzeak ekarri duen buztana ez da amaitu oraindik. Uste zen baino luzeagoa ari da gertatzen.

Interes desberdinen burruka batera eramatea nahiz dute batzuk problema hau, alegia **arrantza eta turismo arteko burruka** balitz bezala.

Gauza horrela planteatzea, ordea, oso gaizki dago, eta jendea konfunditzeko besterik ez da egiten jokabide horrekin.

Kai Berriaren problemak ez dauka **turismo eta arrantzako gatazka** sortu beharrik. Biak behar direlako herrian, biek dutelako bizitzeko eskubidea. Eta arrantzako turismoaren kontra dagoela esatea, astokeria da. Eta turismoa arrantzaren kontra dagoela esatea ere beste astokeria da.

Hondarrribian eta hau askotan esan du gaur arrantzak garrantzia handia du. Arrantzako sektoreak atentzio berezia merezi duela esan beharrik ez dago Hondarrribian ekonomia aldetik, eta ezin dela inolaz ere sakrifikatu beste sektore batzuen alde.


Bestalde **turismoaren sektoreak** hartu duen garrantzia ukatu ezinezkoa bada ere, kontutan izan behar dira pare bat puntu nagusi:

1. Sektore honek urte osokoa ez, baizik bi edo hiru hilabeteko bizi duela.
2. Sektore honek ez duela herri guztiaren ekonomia hobegutzen, sektore horretatik bizi direnena baizik, eta beste herriarrei bentaja baino kalte gehiago ekaritzen dizkiela.
3. Azkenik aipatu beharra dago Hondarrribiak dituen gaitasun eta ahalmen guztiak ezingo lituzkela turismo sektore honen baitan bakarrik ipini.

Bi sektoreen ekilibrioa bilatu behar da, beraz, bai arrantzarena eta bai turismoarena. Eta ez jarri biak bata bestearen aurka. Hori nahi dute batzuk, **arrantza**lek ez direnak noski, herria nahasteko.

Alderdi politikoez ere zer ikusi handia dute Kai Berriaren arazoan. Udalen sartuta daudelako. Orain arte Kai Berriaren alde atera den alderdi bakarra **Herri Batasuna** izan da. Beste guztiak isilik daude.

Arantza



Beriore ezbeharrak itsasoan

Martxo oso beltza izan da itsasotik bizi diren arrantzaleentzat. **Bi gizonak galdu dute bizitza.**

Martxoaren 10ean **FRANCISCO JAVIER VACAS AGIRRE**, 23 urteko arrantzalea, Miarrizko farola inguruan lanperneta ari zela, olatu batek eraman eta hil zen. Gazte hau Amuteko Conbentu-txiki baserrian bizi izan zen, eta Andra-Mari-Berria barkuko eskifaiaokoa zen.

Martxoaren 27an, beriz, **Bitoriano Martinez Oronoz**, 57 urteko arrantzaleari gertatu zitzaion itsasoan hiltzea, Monte San Juan ontzitik eguraldi txarragatik uretara erori zenean. Bere bizi guztiaren itsasoan lanean ariitua, laister jibatuzeko esperantzaz zegoen. Txipiroitan hasiko zen, beste jibatutako asko bezala, baina istante batian, akabo arrantzalearen bizia!

Zorigaitoz, badugu urteoro halako berri tristerik. Itsasoari zor diogu, itxuraz, berak ematen digunaren truke.



Berdela ugari

Berdela izan da, batez ere, gure uretan agertu den arrainik ugariena, eta flota horretara dedikatu da ia hilabete osoan.

Prezioak nahiko merke -merkeegi! - hainbeste lan eginda gero diru pixarra irabazteko. **35/32 pezeta** egin du kilo berdela.

Bestaldekik, berdel gehiegi ekarri eta prezioak ez dituzten lurreraino erori, tripulante bakoitzeko **400 kiloko topea** jarri da.

Eguraldi ona

Eguraldia ondo portatu da arrantzaleekin. Apenas galdu da egunik itsasora joan ezinik. Egunen batean ez badira atera, **Korradian bandera** jaso delako izan da, berdel gehiegi aurkitzen zelako lonjan.

Martxoan hatzeman den berdel kopurua **1.400.000 kilo** izan da. Hauetatik, **150.000 kilo** konjelatu egin dira, hurrengo batean saltzeko.

Antxua exkak

Egun batean bakarrik, zaldutako antxua gure kostara. Martxoaren 25 izan zen egun hori, **65.000 kilo** hatzemanez.

Antxuaren prezioa: **377/303** pezetako izan zen. Gero arraindegitan, **1.000** pezetara ere egin zuten.

Gehiena freskotarako saldu zen. Kontserbatarako **10.000 kilo** joan ziren.

Antxua ederra

Ederra, baina gutxi. Ederra bai, kiloko **33** ale sartzen bait ziren. Eta hori batez ere kontserbereok nahi dutena.

Hatzeman den antxua guztia bertan geratu da, ezer esportatu gabe.

Ea orain, apirilean, suerte hobea izaten dugun.

Berdela, beriz, gehiena esportatu egin da Frantziara, Dinamarkara, Italiara, Finlandiara, etaberrera. Hemen merke saldu, eta hara heldu ordurako **140** pezeta egiten du.

Xebe Kerejeta, Zauritua

Arrantzale gazte honek istripu larria izan zuen Apirilaren 2an. Barkutik Bentara berdela ateratzen ari zirela, maikiniak beso bat harrapatu eta izugarritzko zauriak egin zitzioren.

Hara nolakoa izaten den askotan itsasoko langileen saria. Itsasoan madarikatzen lanean jardun eta ia debalde saldu behar den arraila ekarri, azkenean halako zorigaitzoko ezbeharrak sufritzeko. Ahal den azkarren eta ondoen jarri dadila opa diogu Xeberi.

Andres

ESKOLETAKO ORRIA

KONTSUMO HEZIKETA ESKOLAN

AMA GUADALUPEKO IKASTETXE osoa dago KONTSUMOKO gaietan erabat sarturik. Hasi eskola-aureretik eta goiko zikloraino gai desberdinak bainan kontsumoari dagozkionak aztertzen ditugu.

Aurten goiko zikloan, bi gai ari dira lantzen: Etxebizitza Hondarribian, eta Elia-kaduraren publizitatea.

Ze helburu lortu nahi ditugu lan hauekin?

Guretzako bi helburu dira batez ere garrantzitsuenak:

Bata, haurrek txikitatik ikasi behar dutela ze gauza diren beharrezkoak eta zer beharrezkoak ez direnak, hauda, kontsumo mundu hori ezagun dezaten eta bere aurrean ondo informatuak eta kritikoaik izan daitezten.

Bigarren helburua eta oso interesgarria deritzogu, eskolako ikaskuntza sistema klasikoak desengindu eta zeharo aldatu nahi dugu gizartearen arabera.

Ez ditugu ikasleak irakaslearen erreplikazaila hutsak egin nahi. Ikerketa sistemaren bidez nahi duguna da, ikaskuntza biziagoa edo dinamikoagoa, partizipatibagoa eta kritikoa eta autonomoa egin. Hiz gutxitan izango litzateke: Ikasi ikasten.

Ama Guadalupeko Ikastetxea Goiko Ziklokoak

KONTSUMO ESPERIENTZIA ESKOLAUERREAN

Aurretik, Kontsumo gaia lantzeko, EROSKI gure eskola aukeratu du. Eskolaurrean lantzeko, **ARRANTZA** gaia hautatu da: arraiak ezagutu - itsasontziak - kaia - Benta - arrai salmenta etabar.

Espesientzia honek irauten duen bitartean, gure lantxoak, ipuinak, abestiak etabar, **arrantza** izango dute gai nagusia.

Hala, Martxoaren 11an, Donostiako Kaia eta Aquarium ezagutzera joan ginen, eta Apirilaren 3an, Hondarribiko itsasontzi batean (**Mariñelean**) bueltatxo polit bat eman genuen. Honekin eman genion bukaera gure esperientzia txiki honi.

Ama Guadalupeko Ikastetxea Eskolaurrekoak

Ezkerretik eskuera: Ioseba Olasoaga, Migo Ezeberri, Ion Ugarte, Gorka Sarriegi, Ion Bengoetxea, Nelson Dominguez, eta Ibon Goikoetxea.

DENOK MENDIRA

1984garren urtean Hondarribiko Ikastolak ideia hau izan zuen: hilabetearen behin, igande batetan, mendira joateko irteera bat prestatzea.

Harrez gero, kurtsio haseran paper bat banatzen digute eta bertan irteerak zein egunetan izango diren jartzen du. Irteera hauek 5. mailako gorakoentzat pentsatuta daude, ibilaldiak lau ordutakoak izaten bait dira!. Irteera hauetan 30 edo 40 lagun joaten ohi gara gehienetan.

Irteera hauek Euskal Herritik zehar eta gehien bat Gipuzkoa eta Nafarroa aldera izaten dira. Adibidez, toki hauetara joan izan gara: San Anton, Aralar, Ernio, Ilesa, Iguskiko Muinoa (Leitza), Mendaur, Izaspi, Aiako Harriak, Belagua, Gorbea, Aralar, Amezketeta meatzetatik, Izarraitz, Aizkorri...

Azkeneko irteeran Aralar-Amezketeta trabaesia egin genuen. Eguraldi ona egin zuen eta beste urtetan bezala, irteera honetan jende mordoxka zegoen, bi autobus haundi bete bait ziren!

Guardaren etxean utzi gintuen autobusak eta aurrerago, Pago Marin hamaiketako egin ondoren, bi ordu ibili, eta elurra-ekin jolastu genuen beste bi orduz, ondoren bazkaltzeko.

Arratsaldean, Amezketara iritsi ginen eta taberna batetan sartu ginen autobusaren zain. Autobusa etorri eta etxera itzuli ginen pozik.

Irteera hauetan oso ongi pasatzen dugu denok, mendiak tokiak, jendea, e.e. ezagutzen bait ditugu eta gainera, giro ezin hobean.

Hondarribiko ikastola
losu 8.A

BERTSOAK

Gure lagunen garaipen garrantzitsua gaitzat harturik, hona hemen zer bertso desberdin sortu diren:

Doinua: Pasaiaiko herritik.

• Krosseko txapelketa izan zen Dulantzin ikastola honentzat izan du garrantzi Ion Ugartek bait zuen txapela ezarri saria ekartzea ez zaigu ahaniti.

• Dulantziko zelaian trampa asko zeuden Jaizubiko ikastolak ipini bait zuen baina gu oso azkarrik konturatu ginen Txingudiko horiek non jarri zituzten.

• Krossa antolatuta zuten Dulantzi hirian ea hobereana nor den Euskal Herrian Bigarren izan ziren guztien aurrian lehenak izango dira hemen ospatzen.

• Geure ikastolako sei lagun joan ziren ta han ikusi zituzten neskarik panpoxen horri kaso eginaz korrika egin zuten eta azkenean lonek irabazi zuen.

Ikastolako 8.B



ZORIONEKO EUSKARA

1.979ko Maiatzako plenoan, Hondarribiko Udalak inoiz ez bezalako erabakia hartu zuen: "Hondarribiko Udalaren Hizkuntza Ofiziala Bakarra EUSKARA Izango Zela".

1.983ko Abuztuaren 28ko plenoan, Hondarribiko Udalak beste erabaki hau hartu zuen: "Herriko Kartel Guztiak Euskaraz Jarriko Zirela".

1.987ko Martxoaren 8an, atera ziren, argazki hauek.



HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERAK

JAIO TZAK

OTSAILAK

- 28: UNAI Balerdi Auzmendi
Jose Ignazio eta M. Aranzazuren
semea
Ama Guadalupekoa, 6

MARTXOAK

- 7: YOSEBA IRIGOIEN ANZIASAR
Jose Antonio eta M. Josuneren se-
mea Eguzi-lore, 11
- 9: JULEN Mujika Iñarra
Anselmo eta M. Kororen semea
Goizut. Higer bidea.
- 12: ALBERTO Corral Coudido
Antonio eta M. Doloresen semea
San Pedro, 38.
- 16: IÑAKI IRIGIBEL OLAZABAL
Jose Ignazio eta M. Antoniaren
semea
Tximista, 3.
- 21: AMAIA EGURZEGI IZA
Jesus Angel eta M. Karmenen alaba
Iparraldeko kalea, 7.
- 21: OIHANA ERRAZKIN BALDA
Patxi eta Agustinarren alaba
Iturri-berri, 1.

EZKONTZAK

MARTXOAK

- 7: JOSE M^a EIZAGIRRE ALZA
-47 urtekoa- Hondarribiarra
M^a CARMEN SOROA UNZUETA
-42 urtekoa- Hondarribiarra
- 7: LUIS ESTOMBA REKALDE
-24 urtekoa- Irunen jaioa
ANA M^a FDEZ. DE OCARIZ
SANTOS
-27 urtekoa- Hondarribiarra.
- 7: JUAN ELOSEGI URANGA
-25 urtekoa- Hondarribian bizi dena.
ADELA GARZIA MINTXELENA
-22 urtekoa- Irunen jaioa.
- 21: JOSE M^a VILLAR AGIRRE
-28 urtekoa- Ataunen jaioa
M^a ASUNCION AMUNARRIZ GAMBOA
-26 urtekoa- Hondarribiarra.
- 28: FERNANDO ARTAZA MARTINEZ
-29 urtekoa- Donostian bizi dena.
M^a PAZ IRIGARAI BERGARA
-27 urtekoa- Hondarribian bizi dena.

APIRILAK

- 4: ALBERTO JOSE OLABERA CALPARSORO
-28 urtekoa- Hondarribian bizi dena.
M^a KARMEN IGLESIAS ALONSO
-22 urtekoa- Donostian bizi dena.

HERIOTZAK

MARTXOAK

- 7: FRANCISCO JAVIER VACAS AGIRRE
-23 urtekoa- Hondarribiarra.
Konbentu-txiki etxea. Amute.
- 8: IGNAZIO AGIRRE ORONOZ
-56 urtekoa- Hondarribiarra.
Iparraldeko kalea, 9.
- 19: MANUEL SORONDO ARANETA
-55 urtekoa- Hondarribiarra.
Hendaia.
- 27: BITORIANO MARTINEZ ORONOZ
-57 urtekoa- Hondarribiarra
Beti-alai etxea. M. Mitxelena.
- 28: TOMAS OLASKOAGA CAMINO
-75 urtekoa- Hondarribiarra
Lur-gorri, 4.





Gorka Sarriegi, eta Ion Ugarte.

ION UGARTE EUSKADIKO TXAPELDUNA

1978.eko Martxoak 8an, Dulantzian (Arabai), Euskadiko Kross Txapelketa ospatu zen eta bertara, Gipuzkoako Txapelketa bigarren geratu ondoren, 7 eta 8. mailako mutilak joan ginen.

Goizean goiz esnatu eta 7,30 etan hartu genuen autobusa. Segidan, Iruña iritsi ginen, han Txingudi Ikastolakoak hartu eta Donostiarantz abiatu, han beste ikastolako mutil batzu hartu behar genituen eta. Handik Zarautza eta azkenik Dulantziko bidetara hartu ginen.

Eguerdiako 12etan berotze ariketak egiten hasi ginen futbol zelaian. Iritsi zen benetako ordua, hainbeste lan eskatu zigun ordua zen: 12,30ak, lasterketari hasiera emateko ordua.

—Pum!!! Epaleak haserako tiroa botatu zuen eta han ateratzen denak korrika bizian. Joseba Olasoaga, Ion Ugarte eta Gorka Sarriegi aurreneko taldetxo batean jarri ziren; Nelson Domingez, Ibon Goikoetxea eta Ion Bengoetxea atzeragoxo geratu ziren.

Lasterketa erdia egaro eta, Josebak erretiratu beharra izan zuen, hanka bat igeltsaturik eta aste bat bakarrik entrenatu ahal izan zuen eta. Ion Ugarte eta Gorka Sarriegi aurrera zihoazen.

Laugarren kilometroan, Ion Ugarte eta Txingudiko gure laguna den Iñigo Ezeberri hartu zuten lasterketaren aurrea, tiroi luze batez. Helmuagarako 50 metro gertatzen zirenean Iñon, tximista bezain azkar, aurrea hartu zion Iñigori eta txapelketa honen irabazle suertatu zen.

Lasterketa bikaina eta ezin hobeia izan zen guretzat: 96 lagunren artean Ion lehenengoa, Gorka 18, Ibon 41, Nelson 42 eta Ion 52 iritsi zen.

Euskadiko txapelketa honetan, txapel-duna gurea izateaz gain, ekipotan bigarrenak geratu ginen, gehiegiti!

ATLETISMOA

Ion urrezko medaila eta txapela ezarri zioten; ekipoi Euskal Herria azaltzen duen trofeo bat eman zioten, kopa handi eta polit bat.

Hondarribia eta Ikastolako ikurrina goi goian utzi eta gero, bazkaldu eta pozik itzuli ginen gure Hondarribira.

Hondarribiko Ikastolako
Atletismo taldea

Dulantziko Euskadiko Txapelketa Ion Ugarte Euskadiko TXAPELDUNA, eta Hondarribiko Ikastola BIGARRREN geratu ondoren, Pistako Txapelketa hasi da. Gipuzkoatik 129 ikasle txete dira, Alebin eta Infantil mailetan, bai neskek eta bai mutilak.

129 horietatik, 16 onenak klasifikatu ziren, hauetatik Hondarribiko Ikastolako lau ekipak barruan direla.

Apirilaren 4an jokatu dira infantil-etako semi-finalak, emaitza honekin:

—Nesketan: 8 ekipotatik, BIGARRREN Hondarribiko Ikastola.

—Mutiletan: 8 ekipotatik, IRABAZLE Hondarribiko Ikastola.

ESKUBALOIA TXAPELDUN KADETEAK

NORICA HONDARRIBIA KADETEAK

izugarritzko txapelketa jokatu dute aurtun. Bidasoaren aurka bakarrik galdu dute, eta beste partiduko guztiak irabazi.

Ez da harritzekoa hainbeste lan on eginda gero GIPUZKOAKO TXAPELDUN geratzea. Orain EUSKADIKO TXAPEL-ETA jokatzera doaz, eta esan beharrik ere ez dago, TXITXOren mutikoei ahalik eta gehien egingo dutela.

HAUNDIAK EUTSIZ

NORICA HONDARRIBIA, 1. go Mailan

B-ra igotzea lortu zuen joan den urtean. Gora igo zirenetik, zazpi baja eman zuten ekipoa, bost titularek gainera. Egoera larrian geratu zen ekipoa, horregatik aurtengo helburua mantentzea da. Ez da erraz izango, baina hor dabilta jotake.

Jeisteko zorian lau talde daude: Tafalla, Burgos, Rioja, eta Norica. Hauetako bat jetsiko da.

Herrian afizio gutxi dagoela esan behar, eta laguntza gehiago merezi dutela gazte hauek; ikustera eta animatzera joan behar da Pilotalekura.

ESKOLETAN KANPAINA

Batez ere afizio gehiago lortzeko, otsailaren eta martxoan kanpaina bat antolatu da Hondarribiko eskoletan. Bi hilabete horietan, futbolaren ordea, eskubaloia promozionatu da. Esperientzia berria da.

Guk uste dugu kirol honetan saiatzen direnak, txalo bero beroa merezi dutela.

FUTBOLA

Apirilaren 19an, kategoriako partidua ikusteko aukera izango dugu Hondartzeko Zelaian: NOTTINGHAM — REAL SOCIEDAD ekipok jubenilak jokatu dute goizeko iltan, Jubenil Mailako Txapelketa Internazionalan.

Badiudri Ikastolan kirolari gogor eman dabilta. Hara Ikastolako neskak osatu duten Futboleko Ekipoa, hain kanpaina polita egin dutena. Halaiki neska politekin!





DIRU HOBERIK EZ DAGO.



Diruak dakartzan eragozpenak pila bat izan daitezke, horregatik zurekin ez eramatea hobe duzu. Horretarako, hauxe duzu soluziorik egokiena: **AURREZKI-KUTXA MUNICIPALeko KUTXA TXARTELA.** Estatuko 2.500 kutxazain automatikoetan eskudiruan bihur dadin, eskua zabaldu besterik ez bait duzu egin behar. Eta horrez gainera, denda askotan eta Hon darribiko guzti hauetan dirurik gabe ordaintzeko baliagarria izango zaizu ere.

Eska ezazu oraindik ez baduzu.

KUTXA TXARTELA
Erosketak ordaintzeko balio handikoa.



Hemen, eros ezazu KUTXA TXARTELAekin. ■

RESTAURANTE ABARKA
Baserria Babokio

RESTAURANTE ANDROA
Bekas Durgana, 9

HUSTAL ALVAREZ QUINTERO
Bekas Durgana Edificio Miramar

RESTAURANTE AQUARIUM

C Zalapa, 63

SUPERMERCADO SOKIA
Centro Comercial Sokoa

MUEBLES ALONDA
Centro Comercial Sokoa

ELECTROMUEBLES GEURIA
Fuenterrabia, 19

SENIA
Graf. Leiza, 4 baxo

ELECTRICIDAD KALA

Javier Ugarte, 7 baxo

CALZADOS IKUSI

Javier Ugarte, 7 baxo

IZORRI

Javier Ugarte, 8

RESTAURANTE ARRAUNLARI

P. Baxo (Paseo Adu)

MUEBLES MARTINEZ ORTIZ

P. Baxo, 12

KUTXA

P. Baxo, 2

BOUTIQUE ROS
Paseo, 21

RESTAURANTE JAIZURRA
Pabellón Vasco de Unzué

RESTAURANTE BEKO ERROTA

R. Aduana

HOTEL JAUREGUI

San Pedro, 41 baxo

TXALUPA

San Pedro, 41 baxo

ORIOITZ

San Pedro, 4

ITXAS LOBE

San Pedro, 45

OPTICA JAVIER

San Pedro, 22

RESTAURANTE ARRANTZALE TXORDO
San Pedro, 21

RESTAURANTE ZERIA

San Pedro, 43

RESTAURANTE ITXASPE

San Pedro, 52

MARINOS

San Pedro, 57

ELECTROMUEBLES GEURIA

San Pedro, 8

ASADOR MANOLI

Santago, 41 baxo

RESTAURANTE OSTARTE

Santago, 72

JUAN ALCAIN JAUREGUI, S.A.
Zalapa

BAR RESTAURANTE LA HERMANDAD
Zalapa, 63

GAZTELU SPORT

Zalapa, 18

ASADOR KUPELA

Zalapa, 4

GARDEN

Zalapa-Gazte Martxo-Enea

JOYERIA GARIN

Zalapa, 34

REGALOS NORAY

Zalapa, 38

**AURREZKI-KUTXA
MUNICIPALA**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**

• Martxoko alean esan genizuen PNV puskatu zenez gero, ia inork ez zekiela PNVko zinegotziek zein alderditan zeuden, ala PNVn ala EAn. Baina Pleno batean galdetu egin zitziela, eta hiru EAr igaro zirela eta beste zazpirak PNVn jarraitzen zutela.

Hilabete geroago, ordea, berriro ere beste aldaketa bat izan da zinegotzi horien artean. Martxoaren 18ko plenoan baikoitzak bere buru non aurkitzen den esan du:

Alfonso Ororoz (alkatea), Jose Migel Izagirre, eta Felizitas Gaztañaga = E.A. alderdikoa.

M^a de la Concepción Portu, Manuel-txo Larrarte, Jose Ignacio Lopez, eta Jose Anjel Lizarraga = E.A.rekin "independiente".

Juan Bautista Mendizabal, eta Alfredo Olabera = inorekin ere ez.

Baina guzti hauek **talde bat** osatzen dute: E.A.koa.

Bestalde, PNVrekin Jose Maria Zuaznabar bakarrik gelditu da.

• Zirkulazioaren erroldagatik, herriko ibilgailuek Udalarai 18.604.736 pezetak ordainduko diote.

• Herriko Errolda edo Padroiak, 1987ko urtarrilaren 1ean, kopuru hau ematen zuen:

Gizaseameak	6.505
Emakumeak	6.551
Guztira	biztanle 13.056

Iksuten denez, Hondarribiko biztanle kopurua igotzen ari da, beste herri gehienetan beharera doan neurrian.

Hondarribiko jende gaztea kanpora omen doala bizitzera, herriko etxeak oso garestiak direlako? baina gazte hauen ordez beste batzuk datoz herriara, garbi ikusten denez. Zuzena al da hori?

Hondarribiko herria halaxe ari da aldatzen piskana, bertakoak kanpora, kanpokoak herriara. Deseilibrio edo desoreka galanta ekarriko du horrek epe luzera.

Udalak hartu behar du arazo honen ardura.

• Udalera hubildu da, hain zuzen, gazte talde bat **ETXEBIZITZEN** arazoa aztertu eta soluzioren bat aurkitzeko. HERRI BERTAN kooperatibaren antzera, beste kooperatiba **BERRIA** egin, eta etxe sozialak egitea lortu. Dakigunez ia 400 lagun bildu dira behar gorri honen aurrean, eta ez dute etsiko lortu artean.

• Etxe zaharrak konpontzeko Udalak ematen dituen subentzioei buruz, Udalak adierazten du, bando baten bidez, **bi hilabete**ko epea emango dela eskeak egiteko eta Udalari entregatzeko. Etxe hauek ez dira Alde Zaharrekoak bakarrik izan behar, baizik herriko edozein zonatan. Gainera, subentzioa ematen zaien obrak, ez dute lizentziarik ordaindu behar izango.

• Udalatzain edo aguazil gehiago jarriko dira udan: Hamabi gehiago ekainaren 13tik irailaren 13 arte.

• 12 revolver ere erosiko dira herriko udaltzainak ondo harmatuta ibil daitezken.

Revolver bakoitzak 40.000 pezeta balio du. Udalatzainburuak nahi duenez, uda aurretik **tiro-praktikak** egingo dituzte gure aguazilek.

• Udalatzainekin jarraituz, Gasteizen eta Durangon egingo dituzte **tiro-praktikak**. Alkatea eta Udalatzainburua izango dira zein aguazil izango diren praktika horiek egingo dituztenak.

• "Azken-Portu" tabernari hilabetez itxita egoteko zigorra jartzea proposatu zuen Udalako Zerbitzu-Batzordeak, orduz kanpo taberna itxi gabe zegoela goiz aldera. Proposamen hori Martxoaren 12an egin zuen.

Baina handik 13 egunera, tabernako nagusiaren alegazioak aztertu ondoren, hamar eguneko zigorra ematea proposatzen du Batzorde berak, hau da: Martxoaren 30tik Apirilaren 9 arte itxita egon dadila "Azken-Portu" taberna.

Gauza kuriosoa hau da: lehenengo aldia ere alegazioak hortxe zeudela eta hala ere hilabeteke zigorra proposatu zela. Zer izango litzateke hirugarren aldiz tratatuko balitz Batzorde horretan arazoa? Agian... zigorra kendu?

• Hondarribia garbi edukitzeak egunero kaleak garbitzea eta zaborrak jasotzea eskatzen du. Hori zenbat kostatzen zaigun hondarribiarrai? Orain horretara dedikazten den enpresa Construcciones y Contratas-ek 14.007.951 pezetako presupuestoa aurkeztu dio Udalarai.

• Udalako Euskara Azpibatzordeak aurtengo urterako egitarau edo programa aurkeztu du. Hauek dira talde honen egitekoak:

a) Dirueteetako kanpaina. Banketxe eta Aurrezki Kutxa guztietara deia zabalduko da, bezeroei bidaltzen dizkien inpresu guztietan **euskara erabil dezaten** animatuz.

b) Euskararen aldeko kanpaina. Udalaren errezibo guztiak euskaraz bakarrik egingo dira, eta jendeak ongi ulertu dezan hitzegi txiki bat ere zabalduko da. Erdarazko erreziboak hartu nahi dutenek, eskatu egin beharko diote Udalarai.

d) Txeak euskaraz. Txeak euskaraz betetzen dituztenen artean, sari batzuk banatzea proposatzen da. Sari hauek: 10 euskarazko liburu eta kasetak izango dira.

d) Euskararen Erabilpen Normalaren Plangintzari buruz, apirilaren 16rako Batzorde bat izendatu behar du Udalak, gu txienez hiruk eta gehienez hamabik osatuko dutena. Alkatearen eskuetan dago izendapena.

f) Eskolarteko Jaialdia. Maiatzaren bukaera aldera Hondarribiko ikastetxe guztietako haurrek parte hartuko dutelarik, euskarazko jaialdi eder bat nahi da antolatatu, jolas, dantza, antzerki, etabar. Txaranga batek ere alaituko du eguna.

"HONDARRIBIA" aldizkarian idatzi nahi duenak, edo gure berri jakin nahi duenak, Udaletxeko 642340 telefonora jo bez, edo bertara joan eta Euskara Azpibatzordeak galdetu. Baita, Korreo-setan Udalak duen posta kutxara (apartado de correosera) bidali idazlanak.



ALBIZNEA